

SIMAUURRA: HONDAKINETIK ABERASTASUNERA

Simaurrari buruzko Sihadunaldi hauek Tolosako Aranburu jauregian izan ziren lehengo maiatzaren 30ean eta ekainaren 3 eta 4an.

Lehenengo bi egunetan izandako hitzaldietan simaurraren aberastasuna eta sortzen dituen arazoak aztertu ondoren, azken eguneko mahainguruan gure lurraldean simaurra nola erabili eztabaidatu zuten.

Abeltzaintza intentsiboari, eta bereziki txerri txiza ugariaren arazoari Katalunian eman dioten irtenbidea azaldu zuen Pere Costa Dokt. Gaur egun dauden hainbat aukeraren (biogas produkzioa, depurazio biologikoa, e.a.) abantailak eta mugak baloratu dituzte lurralde horretan. Azkenik, honako hau erabaki dute: ustiategi intentsiboetan sortzen diren txiza bolumen ikaragarriak baltsa handietan biltzea, beren terrenoetarako ongarri beharra duten nekazariek bertatik har dezaten.

EHNEko ordezkariak Euskal Elkarte Autonomoko lurrek duten gai organiko maila azaldu zuen. Beraiek egindako azterketaren arabera, Arabako zenbait lurrentzat onuragarri izango lirateke simaurrak eta txizak ematen dizkieten gai organikoak eta elikagai mineralak.

Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Laborategiko burua den Javier Ansorenak, Gipuzkoan simaurra eta txizari loturik dauden ingurugiro arazoak eta leislazioaren egoera azaldu zuen. Nekazaritzako azalera eta azienda-eroldaren datuen arabera (ikus 1. eta 2. Taulak), Gipuzkoan ditugun 91.729 azienda larri unitate (A.L.U.) eta 45.543 hektareako bazka-azalera, gutxi gorabehera 2ko abere-zama ematen digute.



IÑAKI CERRAJERÍA

3. Taulan ikus daitezke buru horiek guztiek urteko sortzen dituzten gas kiloak, eguratserako kaltegarri direnak. Datu horiek munduko ekoizpenarekin konparatzen baditugu, ikus dezakegu Gipuzkoako aziendak ez duela eragin handirik ozono geruza desegitean eta euri azidoan.

Gipuzkoako ustiategietan sortutako txiza eta simaurrek duten nitrogeno kopurua urteko 7 milioi kilokoa da, hau da, bazka-azalera hektareako 159 kilokoa. Kopuru hau nekazal jatorriko nitratoek sortutako kutsadurari buruzko 261/1996 (otsailak, 16) Errege Dekretoak onartzen duen gehieneko maila baino txikiagoa da (hektareako 170 kilo).

Hala ere, Gipuzkoako lurak oso aldapatsuak direla eta euri ugari botatzen duela kontuan harturik, nekazal praktika oneko kodeen arabera arauak jarraitzen ez badira, txiza zabaltzearen ondorioz erreka, urtegiak eta iturburuak kutsatzeko arrisku handia sor liteke.

Arrisku horiek saihesteko gaur egungo hobekuntzak eta irtenbideak azaldu zituen bigarren ihardunaldian Isidro Urzelaik. Besteak beste, oso inportantea da mota guztietako hondakin organikoak ondo konpostatzea eta zabaltzea terrenoetan. Honetarako, kontuan hartu behar da zeintzuk diren kopuru, garai eta tresnarik egokienak.

Egun berean, Lleidako Unibertsitateko irakaslea den Xavier Flotats Doktoreak "Abereen hondakinak. Baliabide iturria, zuzen gestionatu beharrekoa" izenburuko hitzaldia eman zuen. Hondakin organikoaren gestio egokiaren oinarriko printzipioak aztertu ondoren, antolakuntzako ahaleginak eta gestio planek eduki behar dituzten osagaiak aipatu zituen: jatorrian murriztea, lurrean zabaltzeko plana (lurren mapa) eta tratamenduak (solido eta likido faseak bereiztea, baltsatan pilatzea, konpostatzea, airerik gabeko digestioa, e.a.).

Mintegiaren azken ekitaldia mahaingurua izan zen. Han egon ziren, moderatzaile lanetan Pello Landa, EHNEtik M^o Jesus Intsausti, ENBAtik Jon Arruti, BIOLURetik Karmen Gimeno eta Gipuzkoako Diputazioetik Domingo Merino.

Estiércol: aspectos agrónomos, medioambientales y legislativos

Los pasados días 30 de abril y 3 y 4 de junio se celebraron en el Palacio Jauregi de Tolosa unas Jornadas que, con el título genérico "Estiércol: residuo o riqueza", habían sido organizadas conjuntamente por la Fundación "La Caixa", el Ayuntamiento de Tolosa, la Asociación de Agricultura de Montaña de Tolosaldea y el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En dichas Jornadas, diferentes expertos vascos y catalanes, expusieron la pro-

blemática de los residuos ganaderos, analizando detalladamente los aspectos agrónomos, medioambientales y legislativos relacionados con la aplicación de estiércoles y purines.

Simultáneamente al desarrollo de las Jornadas, el público interesado pudo visitar una exposición divulgativa sobre el mismo tema, en la que se repasaba la historia de la producción de residuos orgánicos en la ganadería, analizándose las causas de los actuales excedentes. □

1. TAULA
Gipuzkoako Nekazaritzako azaleraren
gaur egungo banaketa (Ha)

Basoa	125.768
Bazka-azalera	45.543
Erabilezinak	2.721
Frutarbolak	745
Barazkiak eta loreak	363
Bestelakoak	84
GUZTIRA	175.324 Ha.

Simaurrarekin ez dago aparteko arazorik, noizbehinkako arazo puntualak baizik. Horretan ados agertu ziren hizlariak bakoitzak hasieran egin zuen laburpenean.

Karmen Gimeno zioen bezala, simaurra, aberastasuna ezezik nekazaritza biologikoan ezinbestekoa da; arazoak sortzen dira abeltzaintza eta nekazaritza bakoitza bere aldetik joaten direnean.

Simaurrarekikoak arautzeko Europako Elkartetik etortzen diren aginduak betetzeko dira, jakina, eta denbora pasa ahala Europako Elkartekoak zorrotzago jarriko dira aginduak betearazten, Jon Arrutik zehaztu zuen bezala.

Txizarekin arazoak sortzen dira, bolumen asko dagoelako, batez ere ganadutegi handienetan. Simaur eta txizak ezezik, zorua garbitzeko urak eta teiltatuko urak ere bai askotan, txiza-putzura joaten dira. Eta bolumenak handitu egiten dira horrekin. Merinok Diputazioko erregistroko datu zehatzekin berretsi zuen kontu hori. Baina, Arrutik zioenez, jadanik anto-



MIKEL AFRAZOLA

"Simaurra: hondakina ala ondasuna?" izenburu orokorraz egin ziren ihardunaldietako partehartzaila bat, azalpena ematen.

latuta dago Mendi Nekazaritzaren bidez txiza bana-tzea, eta inoiz arazoak sortzen badira txikiagoak izango direla aurrakusten da.

Mª Jesus Intsaustik datuz lagunduta esan zuen bezala, baserriak gutxitzen ari dira eta dauden baserriak behartuta daude azientak haunditzera. Intentsifikazio horrek dakar, hain zuzen, txizaren arazoa. Horri buelta emateko, baserriko produktuei (haragi eta esnea) prezioak handitu behar-

ko genizkieke eta, hartara, azienta gutxiagorekin diru berbera lortuko genuke.

Ondasun guztiek dute beren gehiegia eta horren haritik plazaratu zen hurrengo arazo nagusia: Merinok esan zuen bezala, ongari natural hauek ere neurritz gora botatzen direnean kutsadura sortzen dute eta barazkietan nabaritu egiten da. Entzuleen artean batek esan zuen ez zegoela daturik esateko hektareako zenbat txiza bota beharko litzatekeen eta herri batzuetan iturriak kutsatuta daudela.

Kezka horri erantzun nahian edo, oilozaleen ordezkariak esan zuen hemengo jendea oso "purista" dela kutsadurarekin eta Errioxan, oilo asko egon arren, ez dagoela hainbeste arazo oilo simaurrarekin. Merinok esan zion Errioxako zenbait herritan uretan nitrato arazoak daudela, beraz ez dela adibide txukunena inori erakusteko eta, beste aldetik, hemengo oilozaleek Errioxakoek baino dirulaguntza handiagoak izan dituztela gauzak behar bezala jartzeko.

Laburpen bezala esan dezakegu arazoak puntualak direla eta kontzientzia pixka batekin zuzendu litezkeela, batez ere kontuan hartzen badugu gure Gipuzkoa inguruko abere kopurua ez dela batere neurritz kanpoko. □

Domingo Merino Merino
Javier Ansorena Miner
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

2. TAULA
Gipuzkoako azienta-errolda (buru kopurua)

Hegaztiak (oilok eta oilaskoak)	720.000	(2.400 A.L.U.)
Ardiak	146.274	(21.941 A.L.U.)
Ahuntzak	3.205	(481 A.L.U.)
Behiak	74.962	(61.590 A.L.U.)
Untxiak	9.000	(300 A.L.U.)
Txerriak	17.300	(2.530 A.L.U.)
Zaldiak	2.487	(2.487 A.L.U.)

3. TAULA
Gipuzkoako azientak sortutako gas kopuruak (urteko kiloak), eguratserako kaltegarri direnak

Azienda mota	metanoa		amoniakoa	
	buruko ¹	guztira	buruko ²	guztira
Behiak	55	4.122.910	18	1.349.316
Zaldiak			9,40	23.378
Ardiak eta ahuntzak	8	1.195.832	3,10	463.385
Txerriak			2,80	48.440
Hegaztiak			0,26	187.200

¹ Jarvis, 1991; ² Buijsman, 1987